

“Zure lanaren bidez erakusten duzu zure ahotsa haiena bezain garrantzitsua dela”

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

María Arnaiz González

Ingeniari kimikoa



ARG.: CIC energiGUNE

María Arnaiz González

Gasteiz, 1993.

- **Ingeniaritza Kimikoa** egin zuen EHU_n, eta, jarraian, masterra eta doktoretza egin ditu CIC energiGUNE_n.
- Gaur egun **ikertzaile elkartua** da CIC energiGUNEko **Prototipadoko taldean**, eta, batez ere, kondentsadore hibrido_{en} garapenean egiten du lana.

María Arnaiz González CIC energiGUNEko ikertzailea txikitatik izan da zientziazalea. Dioenez, seguru asko horretan eragina izan du familiak, aita fisikaria baita, eta ama, berriz, erizaina. "Aitak beti erakutsi dit interesa zientziekiko: lantokira eramaten ninduen, familientzat irekitzen zutenean; parke teknologikoan ate irekiak egiten zirenean ere, elkarrekin joaten ginen...", gogoratu du. Eskolan ere beti nahiago izan ditu zientzietako ikasgaiak, letrak baino; eta, zientzien barruan, zenbakiak eta ekuazioak nahiago zituen, biologia baino.

Unibertsitateko ikasketak hautatzean, Ingeniaritza Kimikoaren alde egin zuen. "Baina hori ez neukan hain argi. Azken finean, zientzietako karrera pila bat daude, eta, batez ere, bi arrazoik bultzatuta aukeratu nuen: batetik, ingeniarietzek irteera asko dituztelako, eta, bestetik, batxilergoan kimikako irakasle oso ona izan nuelako. Dena dela, 17 urterekin pixka bat zoriz aukeratzen dugu, ez baitakigu ezer", dio Arnaizek.

Gustura egin zuen gradua, baina gerora ohartu da agian ez zela lehen lekuan aukeratuko zukeena. "Jada karrera hasi aurretik gustuko nituen erregai-pilak eta halakoak; alegia, orain egiten ari naizena. Aldiz, karreraren ez nuen horrekin zerikusia duen ia ezer ikasi. Bukatutakoan, CIC energiGUNEra etorri nintzen praktikak egitera, eta ordutik bai, nahi nuen horretan nabil".

Azken finean, karreraren, gaitasunak edo konpetentziak lantzen direla uste du Arnaizek, eta horretarako oso baliagarriak izan zitzaizkion Ingeniaritza Kimikoko ikasketak: problemak nola

ebatzi, talde-lana... Jarraian doktoretza egin zuen, eta argi utzi du benetan dela gogorra. "Baina amaieran, lana idatzia duzunean, sekulako poza eta harrotasuna sentitzen dituzu".

Profesionalki eta pertsonalki

Horrez gain, nabarmendu du atzerrira joatea oso aberasgarria izan zaiola, eta denei gomendatzen die esperientzia hori bizitzea. Unibertsitateko ikasle zenean, Erasmusen bidez, Turinera joan zen (Italia), eta doktoretzan, berriz, Alemanian izan zen. Onartu du egonaldi horietan, profesionalki ez ezik, pertsonalki ere asko ikasi duela, eta orain ere beti dago prest bidaiatzeko. "Lanean aukera badago kanpora joateko, berehala jasotzen dut eskua, nire burua eskainiz".

Aipatu du bere ikerketa-eremua nahiko maskulinizatuta dagoela. CIC energiGUNE genero-oreka badago ere, atzerrira joaten denean edo bileretan, ohikoa da gizonak izatea gehiengoa. Baina ez du nabari emakumea izateagatik zailtasun edo oztopo gehigarriak dituenik. Izatekotan, generoagatik baino gehiago, gaztea izateagatik sentitu da noizbait gutxietsita edo baztertuta. "Azkenean, zure lanaren eta ahaleginaren bidez erakusten duzu zure ahotsa haiena bezain ozena eta garrantzitsua dela", adierazi du.

Ildo horretatik, azaldu du lankide bat eta biak STEM sare batean daudela, eta Innobasqueren eskutik ikastetxe batera joan zirela, ikasleei erakustera badirela emakume ikertzaileak, baita energia-arloan ere. Horrelako ekimenak ugaritzen ari direla iruditzen zaio, eta, beraz, itxaropentsu azaltzen da etorkizunarekiko.

Maila pertsonalean, haren nahia ikertzen jarraitzea da, eta, zaila dela badakien arren, lantzen ari den proiektuak aurrera ateratzea eta gizarteari ekarpena egitea amesten du. ●